

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak arrakasta lortzeko funtsezkoak diren baliabide ukigarriak eta ukiezinak zehaztea oinarritzkoa da. Gure proiektuak arrakasta izan dezan funtsezkoak diren baliabide ukigarriak eta ukiezinak zehaztea oinarritzkoa da. Funtsezko baliabide horiek hiru motatakoak izan daitezke: fisikoak, intelektualak eta finantziarioak.

Hasteko, baliabide fisikoak aipatuko ditugu, horiek baitira gure enpresaren funtzionamenduan gehien nabarmenduko direnak. Alde batetik, gure enpresaren ekoizpen-azpiegitura azalduko dugu. Azpiegitura hori egokia izan behar da, eta ondo hornituta egon behar da gure produktuaren fabrikazioa eraginkorra eta kalitate handikoa izan dadin. Horren ondorioz, mantaren atal bakoitzak bere ekoizpen instalazio espezifikoak izango du, bakoitzerako erreminta bat erabiliz. Mantek amaiera zehatza eta profesionala lortzeko, adibidez, hainbat makina automatizatu edukiko ditugu: manta egiteko behar ditugun ehunak mozten dituen makina, horiek moztu ondoren zati guztiak elkartzen dituen, berogailuak mantetan modu seguru eta zehatzean tinkatzen dituen makina eta azkenik prentsa termikoak, osagai horiek finkatzeko eta akabera profesionala ziurtatzeko erabiliko ditugunak.



Horrez gain, manten materiala zehaztea ere garrantzitsua da, horien artean ditugu kotoia (kanpoko geruzarako), poliesterreko edo kotoizko zuntzak barnealdean, eta pisua uniformeki banatu dadin beirazko perlak erabiliko ditugu. Bestalde, manta ikutzean goxoa izateko belusa erabiliko dugu.

Eskuragarritasuna ziurtatzeko, web orrialde bat sortuko dugu, baita sare sozialetan kontu bat ere, bezeroek bertan gure produktuaren xehetasunak azaldu eta erosteko aukera izateko. Horretarako eta gauza gehiagotarako, enpresako ordenagailua eta enpresako mugikorra (bezeroekin edo hornitzaileekin harremanetan jartzeko) erabiliko ditugu. Dena dela, gailu elektroniko hauk iada baditugu aurrez.

Beste alde batetik, gure produktua ahalik eta hoberena izan dadin, noizean behin inkesta bat pasatuko diegu gure bezeroei, gure produktua baloratzeko eta horrekin ondorioak aterako ditugu. Inkestak eginez gauzak onera aldatzen joango dira, izan ere, bezeroengandik ikasten da zer gauza aldatu edo zer dagoen hobetzeko, beraz kritikak ondo hartuko ditugu.

Baliabide intelektualei dagokienez, lau kide garenez bakoitzak lan espezifiko bat egingo du bere zaletasunen arabera finkatuko dena. Bakoitzak bere aldetik jarritz eta gure ahalmenak batuz helburua lortuko dugu, horregatik, talde sinergikotzat hartzen dugu geure burua. Hasteko, Uxuek diseinatzailea izan nahi du, gure produktuaren diseinuaz eta haren materialaren inguruko gauza guztiez arduratuko da. Berak ere hornitzaileekin kontaktuan jarriko da, eta eskaintzen digutena aztertuko du. Produktua iada bukatuta dagoenean, kalitate kontrola pasatzea oso garrantzitsua da, gure bezeroek esperientzia desagokirik izan ez dezaten ziurtatzeko, horretaz Ane arduratuko da. Hala ere, hau guztia ezin izango dugu aurrera eraman bezeroak ez baditugu, beraz Maddik publizitate-kanpaina erakargarriak sortuko ditugu,

enpresaren irudia kudeatuz eta bezeroekin modu eraginkorrean konektatuz. Bukatzeko, enpresako administrazio guztia Telmok eramango du, oso garrantzitsua gure produktuaren errentagarritasuna egunean eramatea.

Azkenik, gure negozioa zabaltzeko finantza baliabideak eskuratu beharko ditugu. Alde batetik guk diru kopuru bat jarri beharko dugu, eta bestetik (laboral kutxa bankuan) kreditu bat eskatuko dugu: 5.000€koa. Diru hori materiala erosi ahal izateko ere erabiliko dugu. Horrez gain, gutako kide bakoitzak 1.000€ jarriko ditu. Hala ere, jarritako diru kopuru hori segituan bukatuko zaigu, beraz, ezinbestekoa izango zaigu nahikoa diru lortzea, alokairua ordaintzeko, materiala eskuratzeko, edo edozein erosketa egiteko; eta horretarako garrantzitsua da enpresak ondo funtzionatzea.